

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 21koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuarena, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa argitara ematen duena (Udalaguntza-2022), Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Agindua aplikatuta.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Agindua hartu da kontuan; agindu horren bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen da (Udalaguntza-2022).

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urtarrilaren XX(e)ko Agindua hartu da kontuan, zeinaren bidez 2022ko irailaren 28ko agindua aldatzen baita (agindu horrek hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen du – Udalaguntza-2022–) eta aurrekontu-kreditua gehitzen baita.

Kontuan izanik aurkeztutako eskabideak, ebaluatutako txostenak, lehentasun-irizpideak eta 2022ko irailaren 28ko Aginduaren 9. artikuluz bat eratutako Balorazio Batzordeak aurkeztutako ebazpen-proposamena, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa onartzea (Udalaguntza-2022) ebazpen honen I. eranskinean aipatzen diren udalei eta hor zehaztutako zenbatekoen arabera, 2022ko irailaren 28ko Agindua aplikatu dadin.

Bigarrena.– Udalek, finantzaketarako hautaturiko ikastetxeen titular direnez, esleitutako kopurua jasoko dute, 2022ko irailaren 28ko Aginduaren 13. artikuluari jarraituz.

Hirugarrena.– II. eranskinean zerrendatutako udalen eta ikastetxeen eskaerak ezestea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, bitarteko elektronikoz, "Nire Karpeta" atalaren bidez, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki taulan (E-Administraziooko Plataforma Teknologikoa –Platea–) argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 21a

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
XABIER AIZPURUA TELLERÍA.

